



EPELeKO BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2018

1. TXAPELKETA SISTEMA

Txapelketak ondorengo faseak izango ditu: Sailkapen Liga, Finalerdietako ligaxka, eta Finala.

1.1. SAILKAPEN LIGA

1.1.1. PARTEHARTZAILEAK

Fase honetan 8 bikote parte hartuko dute, 4 enpresa bakoitzeko.

Egungo Araudia efektu guztietara aplikaturik, pilotari “titulartzat” hartuko da txapelketako aurkezpen ofizialean bikoteko kide bezala aitortzen den pilotariak. Aldiz, adierazitakoarekin konforme dagoen beste pilotari ez titularra, “ordezko” kondizioa edukiko du efektu guztietara kontuan hartu gabe zenbat partidu jokatu dituen edota zein emaitza eskuratu dituen fase batean edo gehiagotan. Pilotari “ordezkatzailea” pilotari “ordezkoaren” kontsiderazio berdina edukiko du Araudi honetan aurreikusitako ordezkapen araudiaren aplikazioan.

1.1.2. JARDUNALDIAK

Sailkapen ligan, bikote guztiak bere artean bi alditan enfrontatuko dira. Lehenurreko ligaxkan jardunaldiak 14 izango dira. Jardunaldiak 2017ko azaroaren 26an; 2017ko abenduaren 3an, 10an, 17an eta 24an; 2018ko urtarrillaren 7an, 14an, 21an, eta 28an; otsailaren 4an, 11an, 18an eta 25an ospatuko dira.

1.1.3. SAILKAPENA

Lehenurreko ligaxkaren sailkapena sailkapen bakar batean burutuko da (bi enpresen bikoteak kontutan hartuz), irabazitako partida bakoitzeko puntu bat lortuz. Hamalau partiden ondoren bikote bakoitzak lortutako puntuak ikusiko da, eta ondoren ligaxkako sailkapena burutuko da. Puntuak batuta berdinketa suertatuko balitz, ondorengo kriterioak kontuan hartuko dira:

- I. Puntuetara berdinketa bi bikoteen artean bakarrik ematen bada:
 - a) Puntu berdintzea bi bikoteen artean sortzen bada, posizio onena jasoko du, koefiziente oberena lortu duena (aldeko tantoak ken kontrako tantoak) ligaxkako bi partiduetan aurka egin dutenetan.
 - b) Bi bikoteen arteko berdinketa jarraitu ezker, aurreko ligaxkako partidu guztietan koefiziente hoberena daukana (aldeko eta kontrako tantoen arteko kenketa).
 - c) Bi bikoteen arteko berdinketa jarraitu ezker, puntu gutxien egindako galdutako partiduan puntu gehien eskuratu dituen eta horrela ere berdinketa jarraitu ezker, puntu gutxien eskuratutako hurrengo partiduan gehien eskuratu dituen eta horrela berdinketa hautsi arte.
- II. Puntu berdinketa, bi bikote baino gehiagotan gertatzen bada, korrelatibozki leku hoberena hartuko du:



- a) berdinketan jokaturako partidoetan, puntu gehiago daukan bikotea.
- b) berdinketa jarraitzen badu, koefiziente oberen bikotea (aldeko tantoak ken kontrako tantoak) bakarrik berdindutako bikoteen artean.
- c) hala ere, berdinketa jarraitzen badu, tanto gutxi lortu zuen galdutako partiduan tanto gehienak lortu zuen bikotea.
- d) jarraitzen badu, hurrengo partido galduta puntu gutxien lortu zuena eta horrela segidako.

1.1.4. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu partida bat jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du.

Lehenurreko ligaxkan bikote baten ordezkoa izan den pilotari batek, fase horretan edo hurrengoetan pilotari horren edo beste pilotari baten ordezkoa izan leike. Lehenurreko ligaxkan bikotearen pilotari titularrak ezin izango dute beste bikoteen ordezkaria izan.

Lehenurreko ligaxkan ordezkoa izanen den pilotari batek ez da bihurtuko titularra nahiz eta ligaxka honetan bikote berarekin partidu asko edo gutxi jokatu, baita ere ez da bihurtuko titularra nahiz eta partida asko irabazi.

Edozein kasutan ere, ordezeko pilotari batek bere ordezkoa izan dezake.

1.2. FINALERDIETAKO LIGAXKA

1.2.1. PARTEHARTZAILEAK

Fase honetan 4 bikote parte hartuko dute, enpresa desberdinetakoak izan arren, lehenurreko ligaxkan posizio hoberenak lortu dituztenak.

1.2.2. JARDUNALDIAK

Bikote guztien artean jokaturako dute, partida bakarrera.

Finalerdietako ligaxkan jardunaldiak hiru izango dira. Jardunaldiak 2018ko martxoaren 11ari, 18ari eta 25ari eta dagokien asteetan jokaturako da. Finalerdiko ligaxkaren 3. jardunaldia ezingo da 2018eko martxoaren 25a eta dagokien asteetan baino beranduago jolastu.

1.2.3. SAILKAPENA

Finalerdietako ligaxkaren sailkapena osatzeko, bikote bakoitzari puntu bat emango zaio irabazitako partidu bakoitzagatik.

Hirugarren jardunaldiaren ondoren, eta lortutako puntuak ikusita, behinbetiko sailkapena ezarriko da. Berdinketa suertaturako balitz, ondorengo kriterioak kontuan hartuko dira:

- I. Berdinketa bikote biren artean badago, hauen artean finalerdietako ligaxkan jokaturiko partidua kontuan hartuko da.



- II. Berdinketa bi bikote baino gehiagoren artean badago, kriterio hauek kontutan hartuko dira:
- Hauen artean jokaturako partiduetan bikote bakoitzaren tanto koefizientea (aldeko tantoak ken kontrako tantoak) hartuko da kontuan.
 - Berdinketa mantentzen bada, finalerdietako ligaxkako partidu guztietako tanto koefizientea hartuko da kontuan.
 - Aurreko erizpideak ezarri ondoren berdinketarik badago, lehenurreko ligaxkan posizio hobetagoa lortu duen bikoteak sailkatuko da.

1.2.4. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu partida bat edo gehiago jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du.

Lehenurreko ligaxkan bikote baten edo batzuen ordezkaria izandakoa, finalerdietan beste bikote desberdin baten ordezkaria izan leike. Final erdietako ligaxkan bikote baten ordezkari moduan jokatzeko duen pilotari batek, fase horretako ondorengo partidatan beste bikoteren bateko ordezkari izan daiteke baita. Bikotearen pilotari titularrak ezin izango dute finalerdietako fase honetan zehar beste bikoteen ordezkaria izan.

Edozein kasutan ere, ordezkari pilotari batek bere ordezkaria izan dezake.

1.3. FINALA

1.3.1. PARTEHARTZAILEAK

Finala finalerdietan lehenengo eta bigarren postua lortu duten bikoteen artean jokatu da.

1.3.2. DATA

Finala partida bakarrera jolastuko da eta 2018ko Apirilaren 8an ospatuko da.

1.3.3. ORDEZKAPENAK

Pilotari bat finala jokatzeko ezindua dagoen kasuan, bere postua ordezkari batek beteko du eta ez da luzapenik egongo 2018ko Apirilaren 8a baino. Bajaren ondorioz, finaleko ordezkari pilotariaren zehaztapena irizpide hauen bitartez aterako da:

- 2018ko Binakako Txapelketan parte hartu duen pilotari bat izan behar da non bajaran dagoen pilotariaren enpresa berdinekoa izan behar den.
- Final-erdietako ligaxkako sailkapenetik aterako da ordezkaria, finalerako sailkatu ez den posizio hoberearen baitan (3^o), eta horrela bata bestearen ondoren (4^o). Final-erdietako ligaxkako sailkapenean baja eragiten duen pilotariaren enpresa berdineko pilotariak ez baleude edota ezinduak baleude, aurreko ligaxkako sailkapenari begiratuko zaio eta final-erdietako ligaxkan



sartu ez den sailkatu hoberena izango da kontutan, eta horrela bata bestearen ondoren.

c) Arestian aipatutako irizpideen baitan enpresa berdineko pilotari titular guztiak ezinduak baleude, baja eragiten duen enpresak hautatutako ordezeko pilotari batek beteko du hutsunea.

2. ATSEDENALDIAK

Txapelketa honetan atsedenei dagokien guztia, EPELeke Atsedenen Araudiaren bitartez arautuko da.

3. SAKE

Bikote bakoitzak sake bakarra izango du, aurkariaren alde tantu moduan zenbatuak izanik bai "labur" edo faltako marrara ailegatzen ez diren sakeak, baita "luze" edo pasako marra gainditzen dutenak.

4. BOTILEROAK

Txapelketan botileroak esku-hartu ahal izango dute soilik enpresa ezberdineko bikoteen arteko partidak jokatzeko badira. Botilero gisa jardun ahal izango dute bikotearen partaideen enpresak izendatutako laguntzaile teknikoak.

5. KONTROL ANTIDOPINAK

Txapelketan zehar kontrol antidopinak ezarri ahal izango dira. Kontrol hauek EPELeke Antidoping Arautegiaren arabera ezarriko dira.

6. PILOTARI BATEN ORDEZKAPENA

Jokatu dituen partidetan bere kirol maila, enpresaren jakintza eta ulermen leialaren arabera eskatu ahal dena, erakusten ari ez den pilotaria enpresa bereko beste pilotari batek ordezkatu ahal izango du. Araudiko atal honetan jarritakoaren arabera, pilotari batek beste bat ordezkatzeko, kanporaketa bakoitzean aurrez ikusitako "ordezkapenei" buruzkoa hartuko da kontuan.

7. ISTILUEN EBAZPENA ETA ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA

Araudi honen inguruan, edo araudiak aurreikusten ez duen edozein kasuen inguruan, sor daitezkeen eztabaidak konpontzea EPELeke Txapelketako Epaila bakarrari dagokio, eta bere iritzia apelaezina izango da.

8. AZKEN XEDAPENA

Txapelketa hasirik, LEP.M-ak, dagokion hitzarmena eskuan harturik, ahalko ditu garapen eta aldaketa xedapenak diktatu oraingo arautegian aurreikusitakoan; bereziki bat-bateko eta aurreikusi gabeko egoerek salbuespen akordio bat justifikatzen dutenean